



Lehiaren Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca de la Competencia

## **Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2020ko Ekintza Planaren betearazpena**

### **Ebaluazio-Txostena**



## **AURKIBIDEA**

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>2</b>
<b>2. Ebaluazioa 2020.....</b>	<b>3</b>

## 1. Sarrera

**2018-2022 aldirako Plan Estrategikoa** Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) lehen plan estrategikoa da. 2017ko abenduan onartu zen, hausnartze- eta plangintza-prozesu luze baten ondoren, zeinak helburu bikoitza baitzuen: agintaritzaren etorkizuneko oinarriak ezartzea eta kudeaketa estrategikorako tresna bat izatea.

Plan horren esparruan, LEAk *“erakunde errespetatua izan nahi du, eta aitortua, EAEko lurraldean lehiaren defentsan eta sustapenean duen erabilgarritasunagatik, zorrotasunagatik, proaktibitateagatik, gardentasunagatik eta independentziagatik, eta merkatu irekiago eta lehiakorrago baten alde egindako lanagatik”*. Ikuspegi horretatik, Planak lau helburu estrategiko zehazten ditu (erakundea sendotzea eta ikusaraztea; merkatuetan lehia defendatzea; lehiaren sustapena bultzatzea eta bikaintasun operatiboa lortzea), eta 10 ildo estrategikoren eta lehentasunezko 38 jardunen bidez hedatzen da.

Txosten honetan, Plan Estrategikoaren **2020ko ezarpenaren ebaluazioaren** ondorio nagusiak jasotzen dira: 2020ko mugarri eta lorpen nagusiak jasotzen dira, bai eta aurrerapen-mailaren ebaluazioa ere, helburu estrategiko bakoitzeko.
















Plan Estrategikoaren hirugarren urtean, haren gobernantza-ereduaren esparruan, **ebaluazio-ariketa hau planteatzen da, helburu hauekin:**

- Planak 2020an noraino egin duen aurrera aztertzea, baita haren helburuak, ildoak eta jarduerak ere. *Zer mailaraino egin da aurrera 2020an Plana ezartze aldera?*
- Diseinatu behar diren egokitzapenak 2021ean plana ezartzen jarraitzeko. *Zeintzuk dira plana 2021ean ezartzeko lehentasunak?*
- LEAren Plan Estrategikoaren hedapenari buruzko ikaskuntzak lortzea. *Zer ikasgai atera dira plana ezarri zen bigarren urtetik?*
- Plangintza-, ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-dinamika berrikustea eta doitzea, LEAren lan- eta kudeaketa-metodoaren zati gisa. *Zer doikuntza eta hobekuntza behar ditu planaren kudeaketako barne-dinamikak?*


## 2. 2020ko ebaluazioa

2020an, LEAk bere Plan Estrategikoaren eta aurreikusitako jarduera-ildoen arabera garatu du bere jarduera, erakundearen eta haren jardueraren finkapena lehenetsiz, baita lehiaren sustapen aktiboa ere, zenbait erakunde eta eragile ekonomikoren eskutik, gainerako helburuak eta jarduteko ildo estrategikoak alde batera utzi gabe.

2020ko Ekintza Planak, zeina Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2020ko urtarrilaren 15eko bilkuran onartu baitzen, kontsulta publiko bat egin ondoren, ekitaldirako lehentasun hauek zehaztu zituen:

<b>2018-2022 Plan Estrategikoa ren 2020ko Ekintza Plana</b>	<b>✓ Lau helburu estrategikoetan aurreikusitako jarduera berriak</b>
	<i>Jarduketa garrantzitsuenak</i>
	<div style="width: 45%;"> <p><b>HE 1.</b> <i>Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li> <b>Enpresa eta operadore ekonomikoetara hurbiltzea</b></li> <li> <b>Lankidetzaren sustapena</b> lehiaren beste agintaritzak batzuekin eta lotutako erakundeekin.</li> <li> <b>Estatuko eta nazioarteko kongresu eta foroetan</b> aktiboki parte hartzea</li> <li> <b>ECN+ Zuzendarauaren transposizioa</b> aztertzea, bai eta horrek LEAren eskumenetan duen eragina ere</li> </ul> </div> <div style="width: 45%;"> <p><b>HE 2.</b> <i>Lehia aldezteko merkatuetan</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li> <b>Lehiakortasunaren aurkako jarduerak detektatzeko baliabide propioak indartzea</b></li> <li> <b>Kontratazio publikoko praktikak aztertzea</b></li> <li> <b>Lehiaren defentsa, talde ahulei eragiten dieten merkatu/sektore sentikorretan</b></li> </ul> </div>
	<div style="width: 45%;"> <p><b>HE 3.</b> <i>Lehiaren sustapena bultzatzea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li> <b>Sektore ekonomiko garrantzitsuei buruzko azterlanak egitea</b></li> <li> <b>Administrazio-erregulazio onari buruzko gida bat egitea</b></li> <li> <b>Kontratazio txikia aztertzea</b></li> <li> <b>Ikastaroak edo kolaborazioak egitea unibertsitateekin, ikastetxeekin eta beste entitate batzuekin</b></li> </ul> </div> <div style="width: 45%;"> <p><b>HE 4.</b> <i>Bikaintasun operatiboa lortzea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li> <b>LEAko profesionalen eta langile berrien prestakuntza planifikatzea.</b></li> <li> <b>Digitalizazio-prozesua amaitzea</b></li> <li> <b>LEAren artxibategia birkonfiguratzea</b></li> <li> <b>Web-orri eta salaketa-kanal berriak</b></li> </ul> </div>

2020. urtean zehar, LEAk **108 espediente** landu ditu (**32 Defentsakoak eta 76 Sustapenekoak**), hau da, aurreko urtean baino % 5 gutxiago, pandemiaren ondorioz administrazio-epreak eten direlako edo proiektu batzuetan atzerapena izan delako, batez ere.



Hauk dira LEaren Plan Estrategikoa 2020an ezartzearen mugarri eta lortzen nagusiak, helburu estrategiko bakoitzean:

### 1. Helburua Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea

- Lehiaren Euskal Agintaritzaren zaintza aktiboa, pandemiak jarduera ekonomikoan duen eraginari dagokionez.
- LEaren parte-hartzea lehiaren arloko nazioarteko foro garrantzitsuetan: ICN, Global OECD Forum on Competition, W@Competition, UNCTAD.
- Foro garrantzitsuak antolatzea: *Compliance*-ri buruzko Jardunaldia (Kuatrecasas), EHuko Udako Ikastaroa, Futbolari eta Lehiari buruzko Jardunaldia.
- Lan instituzional handia, ECN+ Zuzentarauaren eta Lehiaren Defentsari buruzko Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuaren transposizioari dagokionez.
- Autonomia erkidegoetako lehia agintarien sarearekiko lankidetzaren sustapena.

## **2. Helburua. Lehia defendatzea merkatuetan**

- Lehiaren aurkako 32 jokabideren azterketa eta jarraipena; horietatik hiru (3) LEKren ebazpen batekin amaitu dira. Olio birziklatuaren espedientearen gaineko zehapen-ebazpena nabarmendu behar da.
- Hiru (3) zehapen-espediente berri hasi dira (higiezinak, hormigoiak eta fumigazioak), eta arreta berezia jarri da higiezinaren agentziei buruzko espedientearen, zuzenean eragiten baitio kolektibo sentikor bati.
- Bost (5) enpresaren egoitza sozialean ikusapena egin da, informazio erreserbatuaren fasean dauden bi (2) espedienteren esparruan.

## **3. Helburua. Lehiaren sustapena bultzatzea**

- 76 espedientetan jardun da: 44, sustapenekoak; 11, arauemaileak, 2, aurkaratzekoak, eta 19, kontsultakoak.
- 21 LEKen ebazpenak
- VTCri buruzko Dekretu autonomikoa aurkaratzea
- Jardunbide egokien dekalogo bat eta lankidetzaren publiko-pribatuari buruzko txostena argitaratzea.
- Euskadin Erregulazioa Hobetzeko Azterketaren lehen fasea egitea, 2.400 erakunderi baino gehiagori kontsulta publikoa eginez.
- LEAren sustapen aktiboa, kontsulta-organo gisa, enpresa-sektorearen nahiz herritarren zenbait kontsulta (27) ebatziz.
- Lehia sustatzea, 11 txosten arauemailearen bidez.

## **4. Helburua. Bikaintasun operatiboa lortzea**

- Salaketaren kanal digital berria, euskadi.eus atarian.
- Langileen prestakuntza areagotzea.
- Hedapen-euskarri berria sei hilean behingo Lea/AVC Newsletter baten bidez.
- Nazio Batuen Mundu Itunari lotutako erakunde gisa erregistratzea eta jardueraren Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatzen hastea.



Lehiaren Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca de la Competencia